



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko otsailaren 7a

8 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Benjamin de Tudela B.M.I.ko ikasgela aurrefabrikatuei buruzko galdera, Ignacio Ausejo Mozún Foru Parlamentari jaunak egina (2. or.).
- Ondasun higigarriak kontserbatu eta konpontzeko eman diren laguntzei buruzko galdera, Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak egina (2. or.).
- Tafallako barrutiko Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuari buruzko galdera, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak egina (3. or.).
- Tafallako osasun zentrorako aurreikusitako inbertsio eta antolamendu jardueri buruzko galdera, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak egina (3. or.).
- Foru Administrazioaren Itoizko urtegiarekiko eta Nafarroako ubidearekiko jarduketak koordinatzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (4. or.).

#### G SAILA:

##### **Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda (6. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako Testu Arau Emaileak:**

- 690/1996 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. Akats zuzenketa (7. or.).

#### I SAILA:

##### **Parlamentuko Jarduera**

- 1997ko urtarrilean eginiko bilerak (8. or.).
- Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1997ko urtarrilean sartu diren agirien zerrenda (8. or.).

---

**F Sails:**  
**GALDERAK**

---

## **Benjamin de Tudela B.M.I.ko ikasgela aurrefabrikatuei buruzko galdera**

### *IGNACIO AUSEJO MOZUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Ignacio Ausejo Mozún Foru Parlamentari jaunak Benjamin de Tudela B.M.I.ko ikasgela aurrefabrikatuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko otsailaren 4a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### **GALDERAREN EDUKIA**

Ignacio Ausejo Mozún Parlamentari Talde Sozialistari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, indarra duten erregelamenduzko arauetara jarraikiz, Parlamentuko Mahaiari eskatzen dio galdera hau, idatzizko erantzuna eskatzen duena, Nafarroako Gobernuaren aurreran bidera dezala.

Tuterako Benjamín de Tudela Bigarren Irakaskuntzako Institutuan, talde eta maila batzuetan, eraikin nagusiari erantsirik esparru batean dauden ikasgela prefabrikatuetan ematen da eskola.

Aipaturiko egoera baloratu ahal izateko, interresgarritzat jotzen da jakitea:

1.- Modulu prefabrikatu haien egoeraren eta haietan eskola hartzen duten taldeen deskripzioa, bertako instalazio eta segurtasun baldintzak zehazturik; maila bereko ohiko ikastetxean daudenekiko alderapena.

2.- Hezkuntza Departamentuak zer asmo dituen behin-behineko egoera hori gainditzeko eta konpontzeko egin nahi dituen urratsak.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28a

Foru Parlamentaria: Ignacio Ausejo Mozún

## **Ondasun higigarriak kontserbatu eta konpontzeko eman diren laguntzei buruzko galdera**

### *PABLO LORENTE ZAPATERIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Pablo Lorente Zapateria Foru Parlamentari jaunak ondasun higigarriak kontserbatu eta konpontzeko eman diren laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko otsailaren 4a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### **GALDERAREN EDUKIA**

Pablo Lorente Zapateria "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1996ko maiatzaren 29an, gure Parlamentari Taldeak proposaturik, Burillo López Hezkuntza eta Kultura Kontseilari jauna agertu zen zegoen Batzordean, gure Komunitateko ondasun higigarriak zaindu eta zaharberritzeko laguntzei buruzko irizpideen berri eman zezan. Orduetik hona, Talde

honek baditu zalantzak eta galderak. Horregatik, interesgarriztat jotzen da jakitea:

– Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen dituen ondasun higigarriak zaharbertzeko esleipen batzorde edo batzarrik badea?

– Nortzuk osatzen dute?

– Zer irizpide erabiltzen dira dirulaguntzak ematerakoan?

- Badea zerrendarik esleipenei Administrazioaren irizpideen arabera lehentasunak emateko?

– Ekin beharreko obren esleipen aktarik badea?

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28a

Foru Parlamentaria: Pablo Lorente Zapatería

## **Tafallako barrutiko Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuari buruzko galdera**

*FRANCISCA CATALAN FABO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak Tafallako barrutiko Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko otsailaren 4a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Francisca Catalán Fabo "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko

Foru Parlamentari andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko X. Tituluko II. Kapituluaren ezarrikoaren babesean, galdera hauek egiten ditu, idatziz erantzun dakien:

Tafallerriko Emakumeari Laguntzeko Zerbitzuaren iraupenaren inguruan sorturiko eztabaida dela eta, interesgarriztat jotzen da jakitea:

1.- Nola bermatu asmo du Nafarroako Gobernuak Zerbitzu horren iraupena?

2.- Noiz hornitu asmo du langile finkoez?

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28a

Foru Parlamentaria: Francisca Catalán Fabo

## **Tafallako osasun zentrorako aurreikusi diren inbertsio eta antolamendu jardueri buruzko galdera**

*FRANCISCA CATALAN FABO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak Tafallako osasun zentrorako aurreikusi diren inbertsio eta antolamendu jardueri buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko otsailaren 4a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Francisca Catalán Fabo "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko X. Tituluko II. Kapituluaren ezarrikoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Zer inbertsio (azpiegituretan, ekipamenduan eta materialean) eta antolamenduzko jarduketa egin asmo ditu Gobernuak Tafallako osasun etxean Emakumeari Laguntzeko Zerbitzua behar bezala arian egon ahal dadin?

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 30a

Foru Parlamentaria: Francisca Catalán Fabo

## **Foru Administrazioaren Itoizko urtegiarekiko eta Nafarroako ubidearekiko jarduketak koordinatzeari buruzko galdera**

*JOSÉ JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 3an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Foru Administrazioaren Itoizko urtegiarekiko eta Nafarroako ubidearekiko jarduketak koordinatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko otsailaren 4a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluetan ezarrikoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

"Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra" delakoak bere hogeigarren urteurrena ospatu zuen urtarrilaren 24an. Horretarako eztabaida, mahainguru eta mintzaldi jardunaldi bat antolatu zuen, Nafarroako nekazari sindikalismoaren iragan eta geroari buruz.

Nafarroako Gobernuak Lehendakariak bukaera eman zion jardunaldi horri mintzaldi batekin. Horretan adierazi zuen: "Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea lehentasunezko helburua dira buru nauen Gobernuarendako". Hori bat dator beste hizlari batzuek plazaraturiko iritziekin, baita Gobernuak Lehendakari izendatua izateko mintzaldian hark berak adieraziarekin ere.

Bere mintzaldian, Miguel Sanz Sesma jaunak esan zuen: "Oraindik ere arazo juridiko eta ekonomikoa daude eta Estatuaren, Nafarroaren eta partikularren arteko koordinaziozkoak ere". Horiek gaintzeko asmoz eta gai nahasia denez, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua ukitzen baititu, adierazi zuen: "Nire gain hartzen ditut, Gobernuak Lehendakaria naizen aldetik, Foru Administrazioaren jarduketan zuzendaritza eta koordinazio eginkizunak, Itoizko urtegiari eta Nafarroako ubideari dagokienez".

Gobernuak Lehendakariaren konpromezuaren oinarriko kontsideroa izan zen "arazoak aurka egiteko eta konpontzeko" daudela eta "Itoizko urtegiari eta Nafarroako ubideari bultzada bat ematea beharrekoa" dela.

Gobernuak Lehendakariak Komunitateko Administrazioaren jarduketan zuzendaritza eta koordinazioa, Itoizko urtegiari eta Nafarroako ubideari dagokienez, bere gain hartzeko konprometua dela eta, eskatzen da galdera hauei erantzun dakiela:

1. Zer Departamentu, administrazio unitate edo horretarako espreski osaturiko egitura arduratu izan da Foru Administrazioaren jarduketak zuzentzen eta koordinatzen, Itoizko urtegiari eta Nafarroako ubideari dagokienez?

2.- Nola egon dira edo daude oraindik banaturik eskumenak gure Komunitateko Administrazioko Departamentu, erakunde eta enpresa publikoek gai horiei buruz egin izan dituzten jarduketetan? Eskatzen da jarduketa eta haietarako bakoitzaz arduratzen den erakundea zehatz daitezela.

3.- Zehazki, zer koordinazio edo zuzendaritza arazo topatu ditu Nafarroako Gobernuak orain arte eginiko jarduketetan, Lehendakariak berak Foru Administrazioak egin beharreko jarduketan zuzendaritza eta koordinazioa bere gain har ditzan?

4.- Zehazki, zer jarduketa burutu asmo dira aurreko galderan aipaturiko arazoak konpontzeko? Eskatzen da topaturiko arazoa eta konpontzeko egin asmo den jarduketa zehatz daitezela

5.- Lehendakariak harturiko konpromezuak esan nahi du bere gain hartuko dituela egitura organikoan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari esleituriko eskumenak?

6.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak aipaturiko Departamentuen egitura organiko eta funtzionala aldatzeko, Komunitateko Administrazioak Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea direla eta burutu nahi dituen jarduketengatik?

7.- Zer langilez ekin asmo die Nafarroako Gobernuko Lehendakariak bere gain harturiko zuzendaritzari eta koordinazioari? Aipa bitez bete beharreko lanpostuen izenak eta haietariko bakoitzari esleituriko eginkizunak.

8.- Ba ote du Nafarroako Gobernuak ebazpenik, erabakirik, agindurik edo foru dekreturik emateko asmoa zuzendaritza eta koordinazio eginkizun horiek egiteko beste egitura organiko-administratibo bat legez sendotzeko?

9.- Gobernuko Lehendakariak Itoizko urtegiari eta Nafarroako ubideari dagozkien eskumen horiek bere gain hartu ditu kasuan kasuko jarduketek lortu nahi duten helburua argi eta garbi adierazten duten lan, agiri edo txostenen arabera, Administrazioaren berezko jarduketak koordinatzeko asmoz? Eta Estatuko Administrazioarekin? Eta gai horiekin zerikusia duten bestelako erakundeekin (Confederación Hidrográfica del Ebro delakoarekin, Europako Batasunarekin....).

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

**G Sails:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

**Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa**

**Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda**

**Onartuak:**

ADOT LOPERENA, María Angeles

MONEO MARTINEZ, María Inés

URMENETA MARIN, Olga

**Baztertuak:**

Bakarra ere ez.

Iruñean, 1996ko azaroaren 22a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguí

---

---

**H Saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**690/1996 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

**AKATS ZUZENKETA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 3an eginiko bilkuran, erabaki zuen adieraztea Nafarroako Gobernuak bidalitako akats zuzenketaren jakinaren gainean dagoela, alegia, 690/1996 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duenari buruzkoa zuzenketarren berri baduela:

“Honen bitartez jakinarazten dizut ezen 690/1996 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen

duena, Biltzar horri bidali zitzaionean (63 sarrera zenbakia, 1997ko urtarrilaren 20koa) akats bat sartu zela aipatu Foru Dekretuko artikulua bakararren zazpigarren atalean. Beraz zuzendu beharra dago, hurrengo testua jarriko delarik haren ordezt:

“ Zazpigarrena. 37. artikulua. Bi. 1. 1go. a)

“a) Ogi arrunta, ogi arrunteko ore izoztua eta ogi arrunt izoztua, ogi arrunta egiteko beste ezer-tarako erabiltzen ez dena.”

Iruñean, 1997ko otsailaren 4a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**I Saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

**1997ko urtarrilean eginiko bilerak****MAHAIA**

17an.

**MAHAIA ETA BOZERAMALEEN BATZARRA**

10ean eta 27an.

**OSOKO BILKURA**

29an:

– Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu

Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari buruz aurkeztu duen irizpena eztabaidatu eta bozkatztea.

**EKONOMI, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA**

14, 15, 16, 17, 20, 21, 22, 23 eta 24an:

– 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztu zaizkion emendakinak eztabaidatu eta bozkatztea.

**Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1997ko urtarrilean sartu diren agirien zerrenda****2a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Interneten bidezko zenbait informazio pornografikoaz biztanleriari ohartarazterako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Castejón Soria trenbidea kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera D. Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Castejón Soria trenbidea kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Nafarroako Gobernuak Uxueko Santa Marian jarduteko dituen aurreikuspenei buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, genetikoki aldatu-riko produktuei buruz.

**3a:**

– Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazio-arekiko Aferen Salaren idazkia, Nafarroako Udal Administrazioari buruzko Foru Lege proiektuaren eztabaidaren kopia kautotua eskatzen duena.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentariak eginiko galdera, Tuterako hondakin urak arazteko aurreikuspeni buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Iparraldeko Autobian paraturiko laguntzarako telefono-zutoinei buruz.

**7a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak nekazaritza ustiapenak hobetzeko laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ebroko laborategiarendako dirulaguntza. Ikerketa eta garapen jarduerak” izeneko



aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza eta elikadura industriarendako laguntzak I+G jardueretarako” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Landare kontserben industria lehiakortasuna hobetzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “N.P.A.ren eraberritzea. Ingurugiro programak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak lurzati kontzentrazioaren prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak elikagaietarako ez diren laboreei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Erronkariko Batzar Nagusiaren idazkia, eta harekin batera Batzarrak Urbasa eta Andiako parke naturalari buruz hartu duen Erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Gizarte Ongizate Zuzendari Nagusiaren Ebazpena, “Bergizarteratzea” izeneko 24 zenbakiko Programaren kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, hotzaldia eta elurtea zirela eta hartutako neurriei buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, hotzaldia eta elurtea zirela eta hartutako neurriei buruz. (Abaurrea-gaina eta Aezkoa ibarra).

#### **8a:**

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkion emendakinak.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkion emendakinak.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkion emendakinak.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkion emendakinak.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkion emendakinak.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruz egindako galderaren erantzuna.

#### **9a:**

– «Unión del Pueblo Navarro» eta «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeen idazkia. Hauxe eskatu dute: biltzarreko Mahaia eta Bozeramaleen Batzarra biltzeko deia egitea, erabaki politikoa eztabaidatu eta bozkatzeko.

#### **10a:**

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, saiek Luzaiden artaldei egin dizkieten erasoei buruz.

– Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko idazkia, Parlamentuak Gizarte Segurantzako kuotak kotiza ditzala eskatzeko.

#### **13a:**

– Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko idazkia. Ments fisiko eta psikikoak dituzten pertsonen integrazioan ari diren taldeekin lan bilera egitea eskatu du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusiaren ebazpena, José M<sup>a</sup> Cebrian Jiménez jaunaren zerbitzu berezietako egoera administratiboa indar gabe uzten duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusiaren ebazpena, Nekane Iriarte Amigot andrea zerbitzu berezietako egoeran uzten duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Gizarte Ongizate Zuzendari Nagusiaren Ebazpena, Aurrekontuko kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Gizarte Ongizate Zuzendari Nagusiaren

Ebazpena, Aurrekontuko kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak tramitera onartzeari buruzko erabakia.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Lezegalden projektaturiko obrei eta Aralar-Ultzamako beste leze batzutan egin direnei buruz.

#### 14a:

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldearen idazkia. Irurtzun-Altsasu autobidea–Sakanako autobideko obren gaineko lkerketa Batzordean izango dituen ordezkariak izendatu ditu.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Tuterako irispideak hobetzeko obrei buruz.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Ingurugiro Kontseilaria agertzea saiek bizirik zeuden ardiei "oldartu" zitzaizkielakoaren berri emateko.

#### 15a:

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra, S.L. delakoaren urteko gututzko kostuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra, S.L. delakoan lanean ari diren pertsoneri buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren menpeko den Kanpo Ekintza Zerbitzuaren helburuei buruz.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. 1996an zehar enpresei eman zaizkien dirulaguntzei buruzko informazioa eskatu du.

#### 16a:

– Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazio-arekiko aferen Salaren idazkia, 900/96 zk.ko errekurso kontentzioso-administratiboarekin zerikusia duen gai bati buruzko ziurtagiria eskatzen duena.

– Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazio-arekiko aferen Salaren idazkia, 888/96 zk.ko errekurso kontentzioso-administratiboarekin zerikusia duen gai bati buruzko ziurtagiria eskatzen duena.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak eginiko galdera, Klinika unibertsitarioak Osasun Departamentuarekin duen Itunari buruz.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak eginiko galdera, Ingurugiro Departamentuak eta Urbasa eta Andiako Parke Naturalean eskubide historikoak eta erabilerakoak dituzten solaskideen arteko harremani buruz.

– Anatravi Aisdanek aurkezturiko idazkia, Nafarroako merkatalgaien garraioaren alorra pairatzen ari den egoera larriaren aurrean egonezina adierazteko.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, lurzati kontzentrazioeko eskualdeetan "Ustiategiaren oinarritzko azalera"k izenekoak ezartzeari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Nekazaritza Azpiegituren Batzorde Teknikoa"ri buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Lur Fondoak" deritzona eratzeari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, lurzoruaren hirigintza aprobetxamendua dela eta udalei eman beharrekoa ehuneko 5 murrizteari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Lurzoru urbanizagarri programatua" kalifikazioa kentzeari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, eraikinak konpontzeko obrak kargaz arintzeari buruz.

#### 17a:

– Carlos V. De Roux jaunaren idazkia, Giza Eskubideen Lehendakaritza Kontseilaria, Santafé de Bogotá (Kolonbia). Harekin batera Kolonbian giza eskubideen sustapenaren alde dihardutenen bizitza eta segurtasunaren aldeko aitortpen politikoa.

– Kontuen Ganbararen idazkia, eta harekin batera Lourdes Irigoyen Olaiz andrea Kontuen Ganbararen zerbitzuko funtzionario izendatzeko ebazpena, kontu-ikuskatzaile teknikari gisa.

– Kontuen Ganbararen idazkia, eta harekin batera Porcelanas del Norte, SAL, Manufacturas de Navarra, SAL eta Comercial Europea de Porcelanas, SAL enpresei emandako laguntza publikoari buruzko fiskalizazio txostena. Plangintza txostenaren aurrerakina.

**20a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera, 690/1996 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera, 691/1996 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Iruñea-Lizarra N-111 errepideko 12-13 kilometroen arteko eskubiko bazterbidearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Belate Mendateko obren zenbait gorabeherari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Gizarte Ongizate Zuzendari Nagusiak abenduaren 30ean emandako 235/1996 Ebazpena, "Hirugarren adina" izeneko 22 zenbakiko Programaren kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Herrilan Zuzendari Nagusiak abenduaren 30ean emandako 203/1996 Ebazpena, kreditu transferentziagatiko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

– Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak eginiko galdera, Tuteratik Ablitasa doan NA-3010 errepidea zabaltzeko obrak hasteko atzerapenari buruz.

– Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak eginiko galdera, Cintruénigoko DBHko ikasleendako zentroaren obrei buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko mozia, Nafarroako Parlamentuak Foru Diputazioa premia dezan espainiarren erregeri gure lurra ofizialki bisitatzeko egin dion gonbita indar gabe uzteko.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldearen idazkia, Nafarroako Gobernuak Klinika unibertsitarioarekin izenpeturiko lankidetzaren hitzarmenari buruzko informazioa eskatuz.

– Basaburuako Udalaren idazkia, eta harekin batera Udalaren osoko bilkuraren erabakia Euskal Autonomi Elkartearen lankidetzaren iraunkorrerako hitzarmenaren erabat alde daudela erakusteko.

**21a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak basozainei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Industri husketak gutxiendu eta arazteko eta ingurugiro auditoretzendako dirulaguntzak" izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Hezkuntza eta eta Kultura Kontseilariari eskumena emateko erabakia, Nafarroako ikastetxe publikoak eskola material arautuz eta material informatikoz hornitzeko kontratua egiteko.

– Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Unibertsitatez besteko irakaskuntzan baimendu, diruz lagundu eta itundu diren unitate guztiei eustera buruz.

– Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak eginiko galdera, autobideko zubiarri (Ablitas-Ribaforada) buruz.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak eginiko galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak 1996an zehar izan duen botika gastuari buruz.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak eginiko galdera, Osasun Departamentuaren eta San Juan de Dios Klinikaren arteko itunari buruz.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldearen idazkia. Catalán Higuera eta Castellano de Gastón jaunak izendatu dituzten ordezkari Irurtzun-Altsasu autobidea–Sakanako autobideko obren gaineko lankidetzaren batzordean.

**22a:**

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Bozeramaleen Batzarreko Kontuen Ganbarari agindu diezaiola fiskalizazio txostena egitea Tuterako Reina Sofía Ospitaleko mantenimendu kontratuaren betetzeari buruz, HUGUET de Mantenimiento, S.L. enpresari esleitu baitzaio.

– Kontuen Ganbararen idazkia, eta harekin batera Nafarroako 1995eko Kontu Orokorren azterlaritza txostena.

– Adolfo Araiz Flamarique Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Lehendakari-tza eta Barne Kontseilariaren agerraldia, informazioa eman dezan Gobernuaren Ordezkaritzak

errepresio gaietan poliziaren eraginkortasun hobetzeko taxutu duen "Plan berezia"n Foruzaingoak duen parteharteari buruz.

### 23a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Lotzako putzuari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Larraga-Lerin errepidea egokitzeari buruz egindako galderaren erantzuna..

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, galzorian dauden espezieei buruzko berreskurapen plana prestatzeari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Txori-zezen arrunta" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Naumann belatza" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Lagopodo zuria" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Basoilarra" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Eper grisa" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Basoilo handia" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Ganga azpizuria" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Okil ertaina" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Okil gibelnabarra" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Ferra-saguzar mediterraniarra" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Arratoi-belarri txikia" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Igaraba" izeneko espezie babestuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Bechstein saguzarra" izeneko espezie babestuari buruz.

– El Bustoko Udalaren idazkia, eta harekin batera Udaleko osoko bilkuraren erabakia Urbasa eta Andiako parke naturalari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko mozioa, laguntza unibertsalean oinarrituriko gizarte babesa sustatzeko.

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen idazkia, ikurriña Nafarroako Parlamentuan jartzeari buruz.

– Sansoleko Udalaren idazkia, eta harekin batera Udaleko osoko bilkuraren erabakia Urbasa eta Andiako parke naturalari buruz.

### 24a:

– GURASOAK elkarteak aurkezturiko idazkia, eta harekin batera 16 gazteren idazki banak osaturiko txostena, atxiloketen eta poliziaren dependzietatik igarotzearen berri emateko.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordea biltzea eskatu dute SAFAR enpresako langileen ordezkariak enpresaren egoraren berri eman dezaten.

– José Ignacio Fortún Pérez de Ciriza jaunaren idazkia, Nafarroako Parlamentuan zerbitzuak emateari utziko diola adieraziz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Nafarroan dauden enpresen jarduerak sor dezakeen ingurugiro-endekezeari aurre hartzeko laguntzak emateari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, husketen kalitatea hobetzeko laguntzak emateari buruz.

### 27a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera, 8/1997 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldearen idazkia. Ciáurritz Gómez jauna eta Errazti Esnal andrea izendatu ditu ordezkari Irurtzun-Altsasu autobidea–Sakanako autobideko obren gaineko Ikerketa Batzordean.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Platero Alda eta Sánchez Turrillas jaunak izendatu ditu ordezkari Irurtzun-Altsasu autobidea–Sakanako autobideko obren gaineko Ikerketa Batzordean.

– «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldearen idazkia. Jakinarazi dute ezen 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko irizpenari aurkeztu dizkieten emendakinak mantentzen dituztela.

– «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldearen idazkia. Jakinarazi dute ezen 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko irizpenari aurkeztu dizkieten emendakinak mantentzen dituztela.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Jakinarazi dute ezen 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko irizpenari aurkeztu dizkieten emendakinak mantentzen dituztela.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Jakinarazi dute ezen 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko irizpenari aurkeztu dizkieten emendakinak mantentzen dituztela.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldearen idazkia. Jakinarazi dute ezen 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko irizpenari aurkeztu dizkieten emendakinak mantentzen dituztela.

– Nafarroako Gobernuak Lehendakariaren idazkia, eta harekin batera Nafarroako Gobernuak eta UPN, PSN-PSOE, NDE, "IU-EB de Navarra" eta EA alderdi politikoek urtarrilaren 21ean izenpetu zuten elkarbitza baketsurako akordioa.

#### 28a:

– Ignacio Ausejo Mozún Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Benjamin de Tudela ikas-texeko ikasgelen egoerari buruz.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeen idazkia, Giza Eskubideen Batzorde Berezia GURASOAK elkar-tearein biltzeko eskatuz.

– Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, ondasun higigarriak kon-

tserbatu eta konpontzeko emandako laguntzei buruz.

– Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak eginiko galdera, Tafallako Barrutiko Ema-kuamearen Laguntzarako Zerbitzuari buruz.

– Francisca Palma Romero andreak aurkeztu-riko idazkia, zerbitzu berezietako egoeran sar dezatela eskatuz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Nafarroako Mendi Federazioak 1995ean aurekztu dituen kontuen balantze orokor-ri buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Luzaideko lurretan, Ardatza mendiaren hegaletik doan pistari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: erreka-eremuek dagoen Irurre-kekako mendi-bideari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: ea Ingurugiro Departamentuak asmorik ote duen Arzeki mendiaren ondoko lepoa beste punturen batekin lotzeko, makinak erabiliz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Olabetik abiatu eta Berrondo eta Alise- to mendietako hegaletan zehar doan pistari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Gorrontzetik abiatu eta mendizerrare- kin bat egiten duen pistari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: 801 m. puntutik abiatuz Otsarteko leporantz doan pistari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Ordibetik Zardai mendira doan gurdibi- deari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Orbide izeneko bordaren hondakineta- tik abiatzen den pistari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Eratsun eta Ezkurra herrietan Ezkurra ibaiaren ezkerrean dauden mendi-bideak mapan kokatzea.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Aralarra doazen ibilgailuei buruzko azterlanik ba ote dagoen.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Sorogaingo pista bukatu ondoren Iturrunburu mendiaren hegalean dagoen gurdibideari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Otsagitik datorren errepidea bukatzen denetik Nuestra Señora de las Nieves baselizara (Larraitzarra) eta Irabiako urtegiara doan pistari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Igaleko udal dermioko 4,5 puntu kilometrikoan dagoen lur-mugitzeari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Artesiagako gainetik abiatu eta Larrakarte mendiaren magaletik doan pistari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Uztakorta lepotik abiatuta ebaki den mendi-bideari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Arrabako dermiotik abiatuta ebaki den mendi-bideari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Gerindako parke eolikoaren inguruan ebaki diren eta ebakiko diren pista berriei buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Ezka ibaiaren gaineko zubitik Sisaederako gainera igotzen duen abelbideari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Gibleleako pistari buruz.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: 1993ko ekainean Ekologia eta Mendiari buruzko lehen Astearen antolaketa zela eta Nafarroako Mendi Federazioak jaso duen dirulaguntzari buruz.

#### 29a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari

andreak Agustinosen industri poligonoan sortzen ari den zabortegeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak errepideetan dauden merkataritza-adiereazleei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengoari buruzko informazioa eskatu du: Irurtzun-Andoain autobaien Nafarroako aldeko tuneletan erabili den materialari buruz.

#### 30a:

– Kontuen Ganbararen idazkia, eta harekin batera Nafarroako unibertsitatez besteko irakas-kuntzari buruzko fiskalizazio txostena.

– Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak eginiko galdera, Tafallako Osasun Zentrorako aurreikusitako diren inbertsio eta antolamenduari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Itoizko urtegiaren eta Nafarroako ubidearen gaineko Foru Administrazioaren jarduketak koordinatzeari buruz.

– «Unión del Pueblo Navarro», «Socialistas del Parlamento de Navarra», «Nafarroako Demokratikaren Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek aurkezturiko idazkia, elkarbizitza baketsurako akordioari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak lurzorua hirigintza aprobetxamendua dela eta udalei eman beharrekoa ehuneko 5 murrizteari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lurzorua, etxebizitzak eta eraikinak saltzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Alokairuko etxebizitzaren parke publikoa sortzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Alde historikoak konpondu eta errekonstruzioa finantzatzeko bulegoendako diru-

laguntzak" izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea" izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak babes ofizialeko etxebizitzaren baremoa arautzen duen legeria aplikagarriari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Lurzoru urbanizagarri programa-tua" kalifikazioa kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak tamaina txikiko lursailak, aisialdiko baratzak deituak, erabili eta gozatzeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak CACECO instalazioen inguruei eta Club Atlético Osasunari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak telefonia mugikorraren instalazioei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egin berri diren nekazaritza bideek sortzen duten ikusizko eraginari buruz egindako galderaren erantzuna.

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru lege proposamenari aurkeztu dizkon emendakinak.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoaren idazkia, Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak Unibertsitateko gobernu-organo zenbaiten bileren aktei buruz eskaturiko informazioaren inguruan.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko mozia, Nafarroako Parlamentuak Foru Diputazioa premia dezan espainiarren erregeri gure lurra ofizialki bisitatzeke egin dion gonbita indar gabe uzteko.

– «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzeari buruzko Foru Lege proposamenari aurkeztutako emendakinak.

– Aiegiko Udalaren idazkia, eta harekin batera Udalaren Osoko Bilkuraren erabakia Nafarroako Gobernuak Lehendakariaren oraintsuko adierazpen eta egintzei buruz.

– Madrilgo "Fundación por los Pueblos Indígenas"en idazkia, José Domingo Caldón hartzeagatik eskerrak emateko.

– Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Aezkoa ibarreko Batzar Nagusiaren 1993-1994ko finantza-kudeaketari buruzko informazioa eskatu du.

– Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Irunberriko "San Isidro" Zaharretzeko langileei buruzko informazioa eskatu du.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 165 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--